

# María Antonia Proietti, la modelo italiana



Ignacio Díaz Olano
*Margolariaren estudioa. Maria Antonia Proietti*
*Estudio del pintor. María Antonia Proietti*
Hacia 1904-1907 aldera

Fernando de Amárica
*Dama eserita loreekin (María Antonia Proietti)*
*Dama sentada con flores (María Antonia Proietti)*
1895
Hacia 1895 aldera
Amárica Fundazioaren gordailua / Depósito de la Fundación Amárica



Entre los autores que conforman la colección del museo destacan dos nombres, Ignacio Díaz Olano y Fernando de Amárica, los dos pintores alaveses más importantes de la época entre los siglos XIX y XX. Ambos artistas comparten vocación por la pintura, amistad y como vemos en esta pequeña muestra, la misma modelo en algunas de sus obras, la italiana Mª Antonia Proietti.

Ignacio Díaz Olano se había trasladado en 1894 a Roma, uno de los principales centros de formación artística en Europa. Su rutina pasaba por clases de perfeccionamiento técnico en la Academia Chigi, la visita a distintos museos donde estudiar a los clásicos y el trabajo en el taller, donde pintaba las composiciones inspiradas por ese nuevo entorno.

Eran muy numerosos los artistas que poblaban las calles romanas. Algunas, como Vía Margutta, donde tenía Olano su estudio, acogía a otros muchos pintores de la colonia española y extranjera. Con frecuencia estos artistas recurrían a modelos que posaban en sus talleres y cuya presencia —la mayor parte de las veces anónima—, vemos trasladada luego a diferentes obras.

Podemos poner nombre, sin embargo, a la que será la modelo más importante de Ignacio Díaz Olano, la italiana Mª Antonia Proietti. Estará presente desde la etapa inicial de su estancia en Roma y a partir de entonces y hasta la primera década del siglo XX, la veremos en los títulos más importantes del pintor. Presumiblemente viuda, como indican algunas fuentes, tenía una hija, Mª Ángela Mancurti, que rondaría los 5 o 6 años en ese momento.

Ignacio Díaz Olano anima en sus cartas a Fernando de Amárica para que le visite en Roma. Allí acude en diciembre de 1895 con la intención de perfeccionar la técnica del retrato, género escaso en su producción y que reserva para su entorno más íntimo. Amárica pinta entonces los retratos de Proietti y su hija que aquí vemos, fechados entre finales de 1895 y 1896. Son obras de mediano formato realizadas en diferentes técnicas: óleo, un pastel y un dibujo inédito a carboncillo con el expresivo rostro de la modelo. Un conjunto excepcional por la temática, dentro de la obra de Amárica, reconocido como el gran paisajista alavés.

La modelo y Díaz Olano se trasladan a Vitoria en 1896, una vez finalizada la etapa de dos años del artista en Roma. Junto con la niña, conviven integrados en la sociedad vitoriana, como podemos ver en la prensa de la época. Mª Antonia Proietti, además de seguir posando para obras emblemáticas del pintor, tiene un papel activo en la gestión de la academia y estudio que el pintor abre en la calle del Arca.

Se desconoce la fecha concreta del fin de la convivencia y el regreso de Mª Antonia a Italia, pero parece que podría haber sido entre 1907 y 1908; *El estudio del pintor. Mª Antonia Proietti* (h. 1904-1907), sería una de las últimas veces en las que Olano representa a su modelo y pareja. Ésta deja Vitoria tras casi 15 años de relación y una larga lista de obras —entre las más destacadas de la producción del artista—, en las que ella es protagonista indiscutible.

En la sala permanente que el Museo de Bellas Artes de Álava le dedica al autor, podemos ver a Mª Antonia Proietti caracterizada como joven trabajadora de lavandería *(Las planchadoras*, 1895), burguesa (*Restaurante*, 1897), o de romería junto a otros jóvenes del País Vasco (*Vuelta de la romería del Calvario*, 1903), en algunas de las más importantes y conocidas obras del artista.

◄ (Portada)
Fernando de Amárica
*María Antonieta de perfil*
(detalle)
1895
Depósito de la Fundación Amárica

► Ignacio Díaz Olano
*La vuelta de la romería del Calvario*
(detalle)
1903

**Exposición**
Mayo 2024 · Enero 2025

**Museo de Bellas Artes de Álava**
Paseo de Fray Francisco, 8
01007 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 18 19 18
Fax: 945 18 19 19
e-mail: museobellasartes@araba.eus

**Horario**
Martes a sábados:
10:00 - 14:00 y 16:00 - 18:30
Domingos y festivos:
11:00 - 14:00
Lunes cerrado (excepto festivos)
Martes después de lunes festivo, cerrado

Entrada gratuita

Arabako Arte Ederren Museoa
Museo de Bellas Artes de Álava

araba álava
foru aldundia diputación foral





# María Antonia Proietti, italiar modeloa



Museoaren bilduma osatzen duten egileen artean bi izen nabarmentzen dira: Ignacio Díaz Olano eta Fernando Amárica, XIX. eta XX. mendeen arteko Arabako bi pintore garrantzitsuenak. Bi artistek pinturarako bokazioa eta adiskidetasuna partekatzen zuten, eta lagin txiki honetan ikusten dugun bezala, baita modelo bera ere beren lan batzuetan: Mª Antonia Proietti italiarra.

Ignacio Díaz Olano 1894an Erromara joan zen, Europako arte prestakuntzako zentro nagusietako batera. Haren errutina honako hauek osatzen zuten: Chigi Akademiako hobekuntza teknikoko eskolak, klasikoak aztertzeko bisitak museoetara eta tailerreko lana, ingurune berri horretan inspiratutako konposizioak margotzeko.

Erromatako kaleetan artista asko eta asko bizi ziren. Haietako batzuek atzerriko eta Espainiaren koloniako beste pintore asko ere hartzen zituzten: esate baterako, Vía Marguttak;

Ignacio Díaz Olano
*Jatetxea*
*Restaurante*
1897



Fernando de Amárica
*Maria Antonia Proiettiren erretratua*
*Retrato de María Antonia Proietti*
Hacia 1895-1896 aldera
Amárica Fundazioaren gordailua /
Depósito de la Fundación Amárica

han zuen Olanok bere estudioa. Askotan, artista horiek modeloez baliatzen ziren; artisten lantegietan posatzen zuten, eta haien presentzia —anonimoak ziren, gehienetan— hainbat lanetan islatzen zen, gero.

Hala ere, badakigu zer izen izan zuen Ignacio Díaz Olanoren italiar modelo garrantzitsuenak: Mª Antonia Proietti. Erromako egonaldiaren hasieratik izan zuen alboan, eta ordutik aurrera eta XX. mendeko lehen hamarkadara arte, pintorearen lanik garrantzitsuenetan agertzen da. Antza denez, alarguna zen —hala adierazten dute iturri batzuek—, eta alaba bat zuen, Mª Ángela Mancurti, 5 edo 6 urte ingurukoa, garai hartan.

Ignacio Díaz Olanok bere gutunetan Fernando Amárica animatzen zuen Erromara bisitan joan zedin. 1895eko abenduan joan zen hara, erretratuaren teknika hobetzeko asmoz; izan ere, genero hura urria zen haren ekoizpenean, ingurune intimoenarentzat gordetzen baitzuen. Amárikak, orduan, Proiettiren eta haren alabaren erretratuak margotu zituen, 1895 amaieran eta 1896an datatuak. Formatu ertaineko lanak dira, hainbat teknikaren bidez eginak: olioa, pastel bat eta modeloaren aurpegi adierazkorra erakusten duen ikatz ziriz egindako marrazki jendaurreratu gabe bat. Multzo bikaina da, lantzen dituen gaiengatik, Amáricaren obraren barruan, zeina Arabako paisajista handi gisa aitortua baita.

Modeloa eta Díaz Olano Gasteizera lekualdatu ziren 1896an, artistak Erroman egindako bi urteko etapa amaitu ondoren. Neskatoarekin batera, Gasteizko gizartean integratuta bizi izan ziren, garai hartako prentsan ikus dezakegunez. Mª Antonia Proiettik, pintorearen obra enblematikoetarako posatzen jarraitzeaz gain, zeregin aktiboa izan zuen pintoreak Arka kalean ireki zituen akademiaren eta estudioaren kudeaketan.

Ez dakigu noiz amaitu zen bizikidetza eta noiz itzuli zen Mª Antonia Italiara, baina badirudi 1907 eta 1908 artean izan zitekeela; *Margolariaren estudioa. Mª Antonia Proietti* (1904-1907 aldera) izan zen Olanok bere bikotekide eta modeloa irudikatu zuen azken aldietako bat. Modeloak Gasteiz utzi zuen ia 15 urteko harremanaren ondoren, eta ezbairik gabe bera protagonista duten hainbat eta hainbat lan eginda; horiek izan ziren artistaren ekoizpeneko aipagarrienetakoak.

Arabako Arte Ederren Museoak egileari eskaintzen dion areto iraunkorrean, Mª Antonia Proietti ikus dezakegu, ikuztegiko langile gaztea (*Lisatzaileak*, 1895), burgesa (*Jatetxea*, 1897), edo erromeria, Euskal Herriko beste gazte batzuekin batera (*Kalbarioko erromeriako itzulera*, 1903), artistaren lan garrantzitsu eta ezagunenetako batzuetan.

◄ (Ataria)
Fernando de Amárica
*María Antonieta albo batetik*
(xehetasuna)
1895
Amárica Fundazioaren gordailua

► Ignacio Díaz Olano
*Kalbarioko eromeriako itzulera*
(xehetasuna)
1903

**Erakusketa**
2024ko maiatza · 2025eko urtarrila

**Arabako Arte Ederren Museoa**
Frai Francisco ibilbidea, 8
01007 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 18 19 18
Fax: 945 18 19 19
e-mail: museobellasartes@araba.eus

**Ordutegia**
Asteartetik larunbatera:
10:00 - 14:00 eta 16:00 - 18:30
Igande eta jaiegunetan:
11:00 - 14:00
Astelehenetan itxita, jaiegunetan izan ezik
Astelehena jaieguna izan bada, asteartean itxita

Sarrera doan

Arabako Arte Ederren Museoa
Museo de Bellas Artes de Álava

araba álava
foru aldundia diputación foral

